



DANI BLANCO

**Amaia
Lasa
Alegria**



IDAZLEA

Feminizidioa

*Gizona bihozgabea da beste gizonekin,
baina askoz ere bihozgabeagoa emakumeekin*

Oscar Wilde

HITZ HAU Latinoamerikan sortua da, Mexikon zehazki, duela hamalau urte Ciudad Juarezen hasi baina oraindik bukatu ez diren emazteen erailketaz mintzatzerakoan, asko baitira tortura galanten ondorioz hiltzen direnak.

2013 urtean Indian gertatutako emakumeen aurkako bortizkeria eta erailketen oihartzunak apaldu direnean, gurean, Antsoainen hain zuzen ere, bere bikoteki-deak labankadaz hil du andre bat, ondoren, Acapulcon, Mexikoko hiri honetara bizitzaz gozatzea joan ziren sei emakume bortxatu dituzte. Oraindik hango garra-siak isiltzeke daudenean gure lurraldetik gertu dagoen Guadalajaran gizon batek emakume bat hil du duela egun gutxi.

Emakumeen aurkako bortizkeria munduko komunikabide guztietan egunero irakurri daiteken albiste tamalgarri bat izaten da, ez dira berri guztiak argitaratzen hala ere.

Hainbat gobernu ez ditu taxuzko neurriak hartzen, oraindik patriarkalak diren gizartean sortuak baitira agintari hauek

Badirudi amaierarik ez duela bortxa fisikoa, sexuala eta psikologikoa jasaten duten emazteen kopuruak. XXI. garren mendean oraindik andreen odol gorri, baliotsua edonon jario. Nueva Delhi, Ciudad Juarez, Maroko, Euskal Herrian... emazteak erailak izan dira, ez bakarrik ezezagunen esku artean, berak maite dituzten senar, senargai, aita eta zenbait kasutan semeen eskuetan ere.

Hainbat gobernu ez ditu taxuzko neurriak hartzen, oraindik patriarkalak diren gizartean sortuak baitira agintari hauek.

Biktimismo antzu baten zuloan erori nahi ezean, zaurien saminean ez gelditzearren bihotzak, buruak zutitu eta gero emakumeak elkartu egin dira bidegabeke-

ria ikaragarri hauei aurre egiteko, ez bakarrik mobilizazioaren bidez, ikerketa sakonen bitartez, gertatzen ari zaiena izendatzeko. Jasandakoa kontzeptualizatuz sentimendu nahasien zurrumbilotik argira ateratzeak lagunduko balie bezala.

Horrela Diane Russel antropologoak dio "Gizonen eskuetan erailtzen diren emazteak emakume izateagatik soilik" bezala definitzen du feminizidioa.

Tortura eta heriotza horietatik bizirik irauten dutenak ez dira horretan bakarrik geratu, jazoera horiek juridikoki zehazten ahalegindu dira, beren herrietako agenda politikoetan sartzen biderik hoberenak proposatuz, gizarte guztiari dagokion ataka honetatik behin betiko irtetearren.

Feminizidioa gizarte maila guztietan gertatzen da, honen arrazoi nagusietako bat gizonak emaztearekiko duen pertzepzioetik dator. Senar, gizon, maitale horiek andrea berea den gauza bat lez ulertzen dute. Askatasunik gabeko bigarren mailako pertsona bat bezala hartzen dute, erabaki propioak hartu ezin dituen izakia, gizasemearen kontrolpean egon behar duen emekia, gizasemeak pentsatutako araukin bakarrik jokatu, bizi behar duena.

Nik ez dut pentsatu nahi hala ere, XXI. gizaldia aurrekoak baino okerragoa denik emakumearekiko.

Gogoratu dezagun bestela Erdi Aroa "torturaren urrezko aroa" izenez ezagutua ere, zein krudela izan zen emakumearekiko bereziki. Torquemada, De l'Ancre bezalako inkisidoreak zenbat emazte sutara bota zituzten Eliza Santuaren izenean gainera.

Egun egiten dena gertaerarik izugarrienari ere izena ematea da, argira ekartzen saiatzea.

Jakina, guzti hau ez da nahikoa, hildakoa ez du pizten, zauriak, saminak ez ditu saihesten, aurrerapausoak urriak dira eguneroko gehiegikerien ondoan, baina andreak aurrera egiten duen bitartean gizonak beren bizitza osoa eraldatu beharrean daude. ■

